

HUHE ZINE MA

17

EUSKAL FILM
LABURREN
JAIALDIA
2024

ARETXABALETA
URTARRILAK
24 25 26



HUHE ZINE MA

17

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak, HUHEZIK, 2008. urtean antolatu zuen Huhezinema Euskal Film Laburren Jaialdiaren lehen edizioa.

Jaialdi hau besteengandik bereizten duen ezaugarri nagusienetakoa da, urtero, ikasle talde berri batek jaialdiaren antolakuntzan parte hartzen duela, jaialdiaren koordinatzailearekin eta Fakultateko beste irakasle eta langile batzuekin batera.

Aurten 17. edizioa izango da eta urtero bezala, ikasle talde berri bat ibiliko da antolakuntzan. Oraingo honetan, 19 ikasle arituko dira lanean, 2008. urtetik jaialdiaren koordinatzailea den Iban Del Campo irakaslearen gidaritzapean.

Aurtengo edizioan, hurrengo ikasleak arituko dira lantaldean: Xabier Sánchez, Garazi Etxaniz, Marina Gabilondo, Eki Letona, Endika Apalategi, Lucia Meruelo, Mikel Andrews, Naroa Alijostes, Unai Arteaga, Adriana Gredilla, Emily Otegi, Maren Alberdi, Mikel Martinez, Uxue Poveda, Galder Zabala, Alex Altuna, Gorka Marcos, Ari Tola eta Koldo Zubia.



SAIL OFIZIALA

FINALISTA GUZTIEI: 150€

HUHEZINEMA SARIA: 800€ +
BERRIA-ko HARPIDETZA +
PRODUKTU SORTA

AUSART SARIA: 350€

IKUSLEEN SARIA: 100€-TAN
BALORATUTAKO SARIA

IKASLEEN SAILA

IKASLE FILM ONENA: 300€ +
500€-KO IKASTAROA (CENTA)

MU SARIA: 200€

IKUSLEEN SARIA: 100€-TAN
BALORATUTAKO SARIA

BIDEOKLIP SAILA

BIDEOKLIP ONENA: 300€

IKUSLEEN SARIA: 100€-TAN
BALORATUTAKO SARIA

MUNDUKIDE SARIA: 700€

AKTORE ONENA: 150€

IKUSLEEN SARIA: 600€ + EUSKO LABEL
PRODUKTUEN SASKIA

EGITARRAUA

URTARRILAK 24, 25 ETA 26
ARETXABALETAKO ARKUPE ARETOAN

24
ASTEAZKENA

11:00 - 13:00: Masterclassa Paul Urkijoren eskutik: Ideien sormena eta nola eraman aurrera.

13:30 - 15:30: Masterclassa: Ogeita4ko Mattin Aierberekin (MU-ko ikasleentzat)

16:00 - 17:30: Ikasle Sailaren proiektzioa I

18:00 - 19:30: Ikasle Sailaren proiektzioa II

16:30 - 17:00: "Bihotza negar" Bideokliparen estreinaldia

17:00 - 18:00: Soinuaren inguruko masterclassa Asier Renteriaren eskutik

18:30 - 19:45: Bideoklip Sailaren proiektzioa

20:00 - 21:30: Kontzertua: Jasan Taldea

15:00 - 16:00: Sail Ofizialaren proiektzioa I

16:30 - 17:50: Sail Ofizialaren proiektzioa II

18:10 - 19:05: Sail Ofizialaren proiektzioa III

19:30 - 20:30: Sari banaketa

20:30 - 21:30: Lunch-a

21:00 - 23:00: DJ Rosamari

*Jarduera guztiak doakoak dira

25
OSTEGUNA

26
OSTIRALA

MASTERCLASS-AK

**IDEIEN SORMENA ETA NOLA
ERAMAN AURRERA
PAUL URKIJO**



Paul Urkijo zinema zuzendari profesionalak, bere ibilbide luze eta oparoari esker ideien sormenari buruz ikasitakoa kontatuko digu Huhezinemako 17. edizioan. Zinema munduan ideia original bat hutsetik hasi eta errealitate bihurtu arteko prozesuan sakonduko du: esaterako, hain arrakastatsua izan den Irati filmaren kasuan, ideiarene sormena nola izan zen azalduz.

**PANTAILATIK ERREALITERA
OGEITA4-KO MATTIN AIERBE**

Ogeita4, kamera eta ekipa zinematografikoak alokatzeko enpresak, puntako materialak ekarriko dituzte Aretxabaletako Huheziko fakultatera. Material honi esker, ikus-entzunezko komunikazioko 4.mailako ikasleek, gaur egun zinema produkzio profesionalean erabiltzen diren kamera zein objektiboak ikusi, ikutu eta nola erabiltzen diren ikasteko aukera izango dute. Ikasteko modu hobereana praktikatzen denez, eszena zinematografiko bat grabatuko dute.



EPAIMAHAIA

SOINUAREN MUNDUA ASIER RENTERIA



Asier Renteria soinu-teknikariak bideoklip batean soinuak duen garrantzia eta grabaketa prozesu osoko lanketak nola funtzionatzan duen azalduko digu. Horrez gain, Arriguri ekoiztetzearekin elkarlanean egindako Eñaut Elorrietaren “Esna Kanta” bideokliparen sormen prozesuari buruz hitz egingo du, non soinu-teknikari moduan parte hartu duen, eta gainera, eskusiban aurkeztuko du Arkupe aretoan bideoklip-dokumentalaren bertsio luzea.

**SERTX – “BIHOTZA NEGAR”
BIDEOKLIPAREN ESTREINALDIA**
Sertx-en abestiei mina darie, loa kentzen duen min garratz hori. Nostalgia daramana, oroitzen tristeetara igeri egiten duena, bat-batean apurtu den orainaldi horren hormara, bukaeraren hasierara... Huhezinean “Bihotza negar” kanta berriaren bideoklipa aurkezteko du eta sormen prozesuaz arituko da Josu Montero, musika nahasteaz arduratu dena, Mari Mar Arguedas, aktorearekin, eta Iban Del Campo, bideokliparen zuzendariarekin. Amaitzeko, bizpahiru kanta joko ditu zuzenean Sertxek.



MAIDER OLEAGA

1976an jaio zen zuzendari eta gidolari Bilbotarra da. Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziatu zen Nafarroako Unibertsitatean, eta zinema zuzendaritzan diplomatu zen Madrilgo Erkidegoko Zinematografia eta Ikus-entzunezko Eskolan.

Egin dituen lanen artean: “Amaren Ideia” film dokumentala, “Muga deitzen da pausoa”, eta “Kuartk Valley” dokumentala dira. Maider Oleagak Euskal Gidoigileen Elkarte saria eta Donostiako zinemaldian euskal ekoizpeneko fikziozko film luze onenaren saria irabazi ditu.



IZIBENE OÑEDERRA

1979. urtean jaio zen Azkoitian eta Arte Ederretan lizentziatua da Euskal Herriko Unibertsitatean eta gaur egun han egiten du lan Arte Ederren Fakultateko irakasle bezala.



Eskuz egindako animaziozko filmak sortu eta ekoizten ditu, eta egin dituen lanen artean: “Hotzanak, for your own safety”, “Kutxa Beltza”, eta “Hezurbeltzak, una fosa común” dira, azken honek sari ugari jaso ditu nazioarteko jaialdi ospetsuetan. MAPA kolektiboko kidea da, eta gaur egungo zinemari buruzko jardunaldiak antolatu zituen Donostiako Arteleku zentroan.

RAMÓN AGIRRE

1954ean jaiozko Euskal aktore, umorista eta idazle Donostiarra da. Valladoliden arkitektura ikasketak egin arren, Interpretazio ikasketak egin zituen Antzertin, eta 1983. urteaz geroztik, aktore bezala egin du lan zinema, antzerki eta telebista alorrean.

“Irtati” filma, “Aupa Etxebeste!”, eta “Handia” filmetan parte hartzeaz gain, Golazen eta DBH telesailetan egin du lan. Horretaz gain, Michael Haneke zinema-zuzendari ezagunaren “Amour” filmean parte hartu zuen. 2018ko Donostiako Zinemaldian Zinemira Saria jaso zuen Agirrek.



AURKEZLEAK



ANE URRESTI & IKER MATEO

Mondragon Unibertsitateko, Ikus-entzunezko komunikazioko ikasleak dira, hirugarren mailakoak, eta ikasle egunean, urtarilaren 24an egongo dira aurkezle lanak egiten. Ane eta Iker, ikasle onak izateaz gain, Huhezinemako aurkezle modura esperientzia

handia biltzen ari den bikotea da, izan ere, bigarren urtez jarraian izango dira Huhezinemako aurkezle lanetan.

ALBINA STARDUST

Albina Stardust trabesti jaio zela dion artista bat da. Artista nafarrak 2018an egin zuen debuta Iruñako LGBTIQ+ Festa batean. Feminatze gazte moderno, dibertigarri eta pretentsiorik gabeko bezala erakusten du bere burua. Huhezinema jaialdiko aretoa distiraz eta irrarrez beteko ditu bideoklip eta musika egunean, urtarilaren 25ean.



KEPA ERRASTI



Aretxabaletako aktore eta zuzendari ezagunak, sail ofizialeko egunean gerturatzen diren ikus-entzuleak bereganatzen ahaleginduko da berak aurkezteko duen modu umoristikoarekin, urtarilaren 26an. Errastik,

ikus-entzuleentzako, jaialdiko une bakoitza une zirraragarria bihurtuko duela ziurtatu dezakegu, izan ere, Huhezinema jaialdian bigarren urtez aurkezle modura lanean arituko bait da.

SAIL OFIZIALA

► Egin klik trailerra ikusteko



DEADLY DRAW

NITYA LOPEZ SAITUA

Carolinek leihotik begiratzen du kalea, giltza batzuk entzutean izutu egiten da, Nathan da, bere senarra. Bere eskuetara iritsi da hil berri den neska baten saritutako loteria-txartel bat. Ezta-baidatu egiten dute ea etikoa den saria hartzea. Nathan Caroline konbentzitzen saiatzen da...



INFLUENCER

NEREA TORRIJOS

Karen, unean uneko influencer garrantzitsuenarekin obsesionatuta dagoen neska bat, Kamilah Kay, kirurgiako ebakuntza bat egitea erabakitzen du, bere antza izateko. Karen berriak sareetan duen onarpen ona ikusita, bere aurrezkiak ebakuntza gehiagotan gastatzen hasi da. Zenbat eta Kamilahren antz handiagoa izan, gero eta gutxiago du bere antza. Bere bizitza idilikoa da, egun batean zerbait beldurgarriak astinduko dion arte.



ARNASA

RAÚL BARRERAS

Zelai batean eserita, Inaxiok bertso baten bidez bere emaztearen heriotza deitoratzen du. Ekaitz, bere biloba, kantuagatik deitua izan dela dirudi, eta Inaxioren osasunak okerrera egiten duen unean, baserrira itzultzen da, aitona eta elikagaiak ematen dizkieten animaliak zaintzera. Biak, ingurunearen ikuspegi desberdinak izan arren, berriro elkartuko dira eta etorkizuneko zailtasunei aurre egingo diete.

ENCAJADA

LLE GODOY

Alodia diodozko laser saio betean dago. Saioa eten egingo da akats baten ondorioz, eta horrek altxatzera behartzen du. Ihesbideak jada ez du funtzionatzen berarentzat, eta berrerospenean murgiltzea besterik ez zaio geratzen.

BETIKO GAUA

ENEKO SAGARDOY

Mirenek Elena antzemango du alokatutako auto bat gidatzen eta errepidean barrena jarraituko dio.

AGUR ARTZAI

JULEN ZUBIETE

Julen Gorbeiaiko azken artzainetako batengana hurbiltzen da, amaitzen ari den bizimodu bat erretratatu nahian. Biek elkarrekin pasatzen duten denboran, iragenerako atea irekitzen dira, atzean zer geratu den ikusteko.

NORMAS DE HIGIENE

AMAIA SAN SEBASTIÁN LARZABAL

Zauritutako emakume bat asko egiteko gai da; ondo antolatutako eta motibatutako emakume multzo batek askoz gehiago egin dezake. Nita erle erreginak esango lukeen bezala: ez da mendekua, garbitasuna da.

XIMINOA

ITZIAR LEEMANS

JUNEk udako lehen lana aurkitu du. CONSTANCE zaintzen du, maitasun eskasa duen neskato sentikorra. Laster mantsotzen du haurra eta urte osoan bere haurtzain izateko ilusioa hazten zaio. Haurrari lotzen zaion heinean, klase harremanen bortizkeria eta bere identitatearen ukapena deskubritzen ditu.

TXOTXONGILOA

SONIA ESTÉVEZ

Emakume txotxongilo bat, lurrean eta geldirik dago gela batean itxita. Hainbat esperientziaren ondoren gorputzari sokak itsasten zaizkio eta bere mugimenduak gero eta arinagoak dira. Soka bakoitza emakumearen problematika sozialaren alderdi bati lotuta dago, hala nola gorputzari, berdintasunari edo generoari.

PRIORIDADES

TAMARA LUCARINI CORTÉS

Anek eta Andreak sexua dute eta egarri handia, eta nahiz eta kanpoan bizitzak aurrera jarraitzen duen, haiek jarraitu nahi dute, ez dute orain gelditu nahi, azkenean elkarrekin baitaude. Elkar musukatu eta larrutan egiten dute beren energiaren mugaraino, kanpoko zainketek haiek salbatzera etorri arte.



IKASLE SAILA

► Egin klik trailerra ikusteko



BAKARRIK

OIER MARKOTEGI ZUBILLAGA

Familia bateko gurasoak, Begoña eta Xabier, oportetan dihoaz asteburu pasa. Itsasne, familiako alaba bakarra, bakarrik geratzen da etxean. Alaba perfektua izatearen amarengandik egunero jasotako presio eta kontrolaz kanpo, Itsasnek gurasoak egiten uzten ez dioten guztia egiteko aprobetxatzen du. Aldiz, ez dago guztiz bakarrik etxean.

KOSMOSPOLITA

UNAX ALCUBILLA LORENZO

2007an grafika publizitarioko zikloa ezarri zen Ibarrekolanda BHIIn, ikastetxeak ikasleak galtzen zituen eta desagertzeko joera zuen. Urte pare bat geroago, arte plastikoetako batxilergoa ezarri zen eta hurrengo urtean arte eszenikoetako batxilergoa. Aldaketa horiek institutua gaur egun dena bihurtzera eramán dute, institutu erreferente, seguru eta anitza. Baina 2022an Eusko Jaurilaritzak beste plan batzuk zituen...

IDIAZABAL

NEREA MONZON

Idiazabal gaztari buruzko dokumentala da; nola parte hartzen duen kulturen eta nola eragiten dion euskal gizarteari.



BESTE ALDEA - GIZONA EZ DEN HORI

IRATI ALVAREZ, ITZIAR JUARISTI ETA LOREA ELORRIAGA

1936an, espainian, gerrak eztanda egin zuen eta 1937an Angiozar eta Elgeta inguruan frontea hilabete luzez bertan mantendu zen. Askotan hitz egin da gizonak bizitakoaz baina emakumeak ere bizi izan dute gerra. Dokumental honen bitartez euren ausardia eta kemena, bai frontean eta bai frontetik urrun egoan erresistentzian, nabarmendu eta gogorarazi nahi izan da.

1500

AMETS ANDUEZA



Nerea, 20 urteko korrikalariak, bere amak utzitako lekukoa hartuz, Europako 1500m-ko txapelketako parte hartzailea da. Haraino iristeko egin beharko duen esfortzuak pena mereziko du?

MATAMOSCAS

IRENE ROYO



Lapur bat, bitxiak eskuan eta euli bat belarrian, eta itsu bat, belarriak oso erne eta matamoskasa eskuan.

AHANTZI

ITOITZ URKIOLA MUNDUATE



Euskal Herriko baserri batean bizi diren Olatz eta Eneko anai arrebek, beraien egunerokotasuneko lanetan eragingo dien berri txar bat jasotzen dute.



ZIRRARA

ANE CUESTA MONGE

Neskatzko batek dardara ezezaguna sentitzen du gorputzean, txisa egin ostean, alua sikatzean.

LEHEN SAIKERA

NATALIA BERRIDI, YURENA CARRERO ETA MARINA PEROSANZ

Iragaitzako migratzaile batek Irun eta Hendaia arteko muga zeharkatzerakoan aurkitzen dituen oztupoak irudikatzen ditu, baita Frantziako Estatutik Espainiako Estatura itzultzeko aplikatzen zaizkion prozedurak, harrera-sareen eta boluntarioen eskutik jasotzen duen laguntza eta horrek guztiak eragiten dituen ondorioak ere.

NOIZKO BASOA

MIKELE LANDA EIGUREN

Berriz hasiko den baso bat. Inoiz ikusi ez duen paisaia oroitzen ari den herri bat. Eskuekin eta atxurrekin, lur idorrari eraginez, gainazalera atera nahi ditu noizbait Ullan hazitako zuhaitzak. Hemen etengabe jaiotzen ari da erreka, orain ere bai eta jada ahaztu duen hizkuntza batean mintzo da. Basoa izatera heltzean nork biziko ote du? Nola askatu daiteke lursail bat? Norbaitek izendatuko ote du? Non du hasiera herri batek?

HARIAK

SARA DÍEZ ITSASNE DÍAZ ETA JAVIER ELIZALDE

Gaixotasun mental larria duten lau testigantzen prozesua nolakoa da ikusten da.

BIDEOKLIP SAILA

► Egin klik bideoklipa ikusteko

BELE - ZERUA IRABAZI

NITYA LOPEZ SAITUA

Garbitzaile batek ikastetxe batean lan egiten du, bere parean kaosa zabaltzen duen bitartean.

APOTHEKE - SIEMPRE SABES CUANDO VOLVER

BEÑAT GOIA ZIGANDA

Apotheke Iruñean sortutako post punk elektroniko taldea da. Abesti honetan taldeak antsietatea-ren gaia lantzen du.

PLASTIKOZKO HIRI BAT - POSTAL KOLEKZIONISTAK ft. PABLO ZURUTUZA

IÑIGO ASENSIO, IÑAKI GEREÑU ETA IMANOL G. GURRUTXAGA

Igande gaua da Donostiako hirian, gizartea ezkutuan eta kaleak Glovo-ko banatzaileen joan-etorriak hartu ditu.

THAWRA

ZURIÑE LÓPEZ DE SABANDO

Palestinara joan-etorriko bidaia bat lankidetzat artistiko batean bihurtzen da.

REBEL NOISE - NOR NAIZ NI?

OIHAN LOITI

Istorioak bere buruaren bila dabilen mutil gazte baten baten ibilbidea kontatzen du. Istoria musikala taldearen emanaldi antzeztu batekin nahasten da.

TXOPET - NIRE HITZEN GEZURRETATIK

NAHIA NOVO

Kanta norberak bere buruarekin dituen erronkei buruz doa, eta hori islatzen du bideoklipak. Sokatira bataila bat da jokoan sartzen den konparazioa, norberak jartzen duen indarra eta jarrerarekin batera.

EIDER - EZ ESPERO EZER NIGANDIK

ANDONI CLAVO

EIDER abeslariaren azken single-aren bideoklipa. Nork bere burua ezagutzeko prozesuari buruz hitz egiten digu bideoklipak, abestiak bezalaxe.

MUNLET - ASTINDU

INA IRIONDO SAINT-GERONS

Devo taldearen Whip It bideoklipa beregina baina euskal tradizioak araberaz.

MELIORA - GALDUTAKO HURA

UNAI LIZARZA

Bikote baten istorioa azaltzen da non diskusio baten ostean utzi egiten dute. Mutilak hasiera baten ezin du asimilatu, baina denbora pasatu ahala beren kateak apurtu eta autokonfiantza sustatzen ditu.

ERROMINTXELAK - ESPEROAN

NITYA LOPEZ SAITUA

Ibon berandu doa lanera.

ANTOLATZAILEA:



Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

BABESLE NAGUSIAK:



Aretxabaletako
Udala



KOLABORATZAILEAK:



LAGUNTZAILEAK:

